

LEGE-OHARRA ETA ERABILERA-BALDINTZAK (WEBGUNEA)

(2023/11/09tik indarrean den bertsioa)

INFORMAZIO LEGALA

Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoaren Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legearen 10. artikuluan ezartzen da informazio-gizarteko zerbitzu-emaileak eduki behar dituela baliabideak, bai zerbitzuaren hartzaileei bai organo eskudunei, bide elektronikoen bidez, modu iraunkor, erraz, zuzeneko eta doakoan, informazio hau eskura jartzeko:

Domeinuaren izena: www.goe.community.bculinary.com

Helbide elektronikoa: goe@bculinary.com

Jabea: **BASQUE CULINARY CENTER FUNDAZIOA**, egoitza Donostiako Juan Abelino Barriola pasealekuko 101.ean duen erakundea, Euskadiko Fundazioen Erregistroan inskribatua (erregistro-zk.: F-253) eta IFK G-20998100 duena (aurrerantzean, “**BCCF**”).

ERABILERA-BALDINTZAK

Eremua, helburua eta irismena

Xedapen hauek (aurrerantzean, “**ERABILERA-BALDINTZAK**”) arautzen dituzte BCCFk www.goe.community.bculinary.com domeinuaren bidez (aurrerantzean, “**WEBGUNEA**”) Interneteko erabiltzaileen (aurrerantzean, “**ERABILTZAILEA/K**”) esku jarritako webguneko zerbitzura irispidea izateko eta erabiltzeko baldintzak.

Aurrez esandakoaren kalterik gabe, litekeena da BCCFk WEBGUNEAREN bidez ERABILTZAILEAREN esku jartzen dituen zenbait edukitara sartzeko edo zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko baldintza berezi batzuk izatea (aurrerantzean, “**BALDINTZA BEREZIAK**”), zeinek, kasu bakoitzaren arabera, ERABILERA-BALDINTZA hauek ordeztu, osatu edo aldatuko baitituzte eta, kontraesanik balego, hauen gainetik egongo baitira. BALDINTZA BEREZI horiek aplikatu behar badira, ERABILTZAILEEN esku egongo dira WEBGUNEAN bertan.

Ondorioz, eduki horietan sartu aurretik edo zerbitzu horiek erabili aurretik, ERABILTZAILEAK arretaz irakurri beharko ditu sarbide eta erabilera hori gauzatzen den unean argitaratutako bertsioa arautzen duten BALDINTZA BEREZIAK, eta, hala badagokio, onartu egin beharko ditu.

BCCFk eskumena du, edozein unetan eta aurrez jakinarazteko beharrik gabe, ERABILERA-BALDINTZA hauetan edozein aldaketa edo eguneratze egiteko. Aldaketak eta eguneratzeak egin ahal izango ditu, halaber, dagozkion BALDINTZA BEREZIETAN eta, oro har, WEBGUNEAREN diseinua eta konfigurazioa osatzen duten elementu guztietan. WEBGUNEAREN azken eguneratzean argitaratutako ERABILERA-BALDINTZAK bete beharko dira, eta bisitaldi bakoitzean, une horretan WEBGUNEAN argitaratuta daudenak izango dira aplikagarriak.

ERABILTZAILEAK, WEBGUNEAN sartzearekin, onartzen eta baimentzen ditu webgunearen erabilera-erregimena arautzen duten ERABILERA-BALDINTZA hauek, berariaz eta eragozpenik gabe, eta onarpen horrek izenpetutako idatzizko edozein kontraturen baliozkotasun eta eraginkortasun berberak izango ditu.

. ERABILTZAILEAK ez baditu ERABILERA-BALDINTZA hauek osorik onartzen, ez du baimenik izango WEBGUNEAN sartzeko.

ERABILTZAILEaren erregistroa eta pasahitza

WEBGUNEA erabiltzeko eta BCCFk horren bidez eskura jarritako eduki eta zerbitzu jakin batzuetarako sarbidea izateko ERABILTZAILE gisa erregistratu beharra dagoen kasuetan, horretarako informazio egiazkoa eta legezkoa ematearen erantzulea izango da erabiltzailea.

ERABILTZAILEAK modu egokian erabili beharko ditu esleitzen zaizkion identifikatzailea eta pasahitza, haiek zaintzearen eta isilpean gordetzearen erantzulea izango da, eta konpromisoa hartuko du hirugarrenei ez uzteko —ez aldi baterako ez betiko—, baita bestelako pertsonen sarbidea ez ahalbidetzeko ere.

WEBGUNEAREN sarbideari eta erabilerari lotutako baldintza ekonomikoak

BALDINTZA BEREZIETAN besterik adierazi ezean, WEBGUNERAKO eta bertako edukietarako sarbidea doakoa da, ERABILTZAILEAK bere hornitzailearekin kontratatuta daukan telekomunikazio-sarerako konexioaren kostua izan ezik.

Jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubideak.

WEBGUNEAREN gaineko jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubide guztiak legez erreserbatuta daude, eta ERABILTZAILEAK sarbidea izateak ez du esan nahi, inola ere, BCCFren eta edozein hirugarrenen titulartasunekoak edo jabetzakoak diren aktiboen erabilera-lizentziarik edo eskubiderik ematen zaionik. Eskubide-erreserba hori (i) bai kanpoko itxurari (*look and feel*) eta WEBGUNEAREN nabigazioaren kode, diseinu eta egiturari (ii) bai WEBGUNEan dauden eta hedatu daitezkeen edozein formatutako edukiei dagokie eta, bereziki, BCCFk WEBGUNEAN jartzen dituen katalogo eta irudiei.

WEBGUNEAN izen komertzialen, marken, logotipoen edo bestelako ikur bereizgarrien erreferentziak barne hartzen badira, direla BCCFren titulartasunekoak direla hirugarrenenak, debekatuta egongo da haiek erabiltzea BCCFren berariazko baimenik edo legezko titularraren baimenik eduki ezean.

Ondorioz, ERABILTZAILEAK WEBGUNEAREN bitartez bere esku jarri diren edukiak eta zerbitzuak modu pertsonalean eta pribatuan bakarrik bistaratu eta erabili ahal izango ditu, betiere aipatutako eduki eta zerbitzuekin jarduera komertzial edo profesionalik egiteko helbururik gabe.

Halaber, debekatuta dago WEBGUNEAK funtzionatzeko, irispidea izateko eta erabili ahal izateko beharrezkoak diren programa informatikoak deskonpilatzea, desmuntatzea, atzeranzko ingeniari egitea, azpilizentziak ematea edo edozein modutara transmititzea, itzultzea edo lan eratorriak egitea. ERABILTZAILEAK inola ere ez du ezabatu, aldatu, saihestu edo manipulatu behar WEBGUNEAN instalatuta egon daitekeen inolako babes-gailurik edo segurtasun-sistematik.

Erantzukizunak eta bermeak

WEBGUNEA erabiltzen duenak bere gain eta galorde erabiltzen du. WEBGUNEAN sartzean, ERABILTZAILEAK hitz ematen du (i) ez duela BCCFren edo hirugarrenen irudiari, interesei eta eskubideei kalte egin diezaikekeen ezer egingo, ezta WEBGUNEARI kalte egin, hura ezgaitu edo gainkargatu dezakeen ezer ere, ezta dena delako moduan hura normal erabiltzea eragotz dezakeen ezer ere, eta (ii) Legeekin eta trafiko komertzialeko erabilerekin guztiz bat datorren moduan erabiliko duela.

Horren ondorioz, ERABILTZAILEA izango da erantzulea BCCFren edo hirugarrenen aurrean betebeharrak ez betetzearen ondorioz kalte-galerarik badago.

WEBGUNEAK behar bezala funtzionatzeko eta birusak eta osagai kaltegarriak hautemateko egokitzat jotzen dituen segurtasun-neurriak ezartzen ditu BCCFk. Hala eta guztiz ere, ERABILTZAILEAK kontuan izan behar du Interneten sistema informatikoen segurtasun-neurriak ez direla erabat fidagarriak, eta horrenbestez, BCCFk ezin duela bermatu (i) WEBGUNEAN jasotako edukiak eta zerbitzuak edozein unetan eskuratu ahal izatea, (ii) aipatutako edukietan akatsik ez egotea, ezta gertatzen den edozein akats konponduko duenik ere, (iii) birusik edo ERABILTZAILEAREN sistema informatikoak (softwarea eta hardwarea) edo dokumentu elektronikoak eta haietan jasotako fitxategietan aldaketak eragin ditzakeen elementu kaltegarriak izango ez denik, (iv) ezta ezarritako segurtasun-neurriak hutsezinak direnik ere.

Era berean, BCCFk zerbitzua partzialki edo erabat, aldi baterako edo behin betiko eteteko eskubidea dauka, aldaketa teknikoak edo matxurak baldin badaude, aldezturik jakinarazita, posible bada, WEBGUNEAREN edo horretara zuzendutako beste edozein baliabideren bidez.

ESTEKAK

Estekatutako guneak

WEBGUNEAREN bidez, BCCFk ERABILTZAILEAREN eskura jartzen ditu hirugarrenen jabetzako eta hirugarrenek kudeatutako Interneteko beste gune edo atari batzuetara (aurrerantzean, “**GUNE ESTEKATUAK**”) bideratuko dituzten estekak egiteko gailu teknikoak (adibidez, botoiak, estekak eta *bannerak*) eskaintzen dizkio.

BCCFk ez ditu ESTEKATUTAKO GUNEETAN jasotako eduki eta zerbitzuak ez ezagutzen ez kontrolatzen, eta WEBGUNEAREN bitartez haietarako sarbidea emateak ez du inola ere esan nahi (i) BCCFk ESTEKATUTAKO GUNEETAN barne hartutako eduki eta zerbitzuak aholkatu edo onartzen dituenik eta (ii) BCCFren eta ESTEKATUTAKO GUNEAREN arduradunaren artean harreman, elkarlan edo mendekotasunik dagoenik.

Ondorioz, BCCFk ez du bere gain hartzen ESTEKATUTAKO GUNEEN gaineko inolako erantzukizunik, eta, beraz, ez du hartzen bere gain haien funtzionamenduaren, haietan jasotako eduki eta zerbitzuen eta ESTEKATUTAKO GUNE horietan barne hartutako esteken gaineko erantzukizunik.

ERABILTZAILEAK jakiten batu ESTEKATUTAKO GUNE bateko edukiak, zerbitzuak edo bestelako edozein jardura legez kanpokoak edo desegokiak direla, BCCFri berehala jakinarazi beharko dio, hala badagokio, egokitzat jotzen dituen neurriak har ditzan.

Hiperestekak

Beste gune edo web-orri batzuetan hipertestuetarako loturak (hiperestekak) egitea baimentzen da, <https://goe.bculinary.com/> webgunearen hasierako orrira zuzenduta baldin badaude, edo, hala badagokio, WEBGUNEAREN barruko beste edozein orritara (*deep link*) zuzenduta baldin badaude, eta orri horiek leihos batean agertzen baldin badira, dagozkien URL helbideekin, WEBGUNEAREN hiperesteka jartzearen ondoriozko edozein erantzukizun bere gain hartuta.

Hiperesteka agertzen den webgune edo web-orrian ezingo da inola ere adierazi BCCFk hiperesteka hori jartzeko baimena eman duenik, BCCFk idatzizko berariazko baimenik eman ez badu.

Bere webgunean edo web-orrian hiperesteka jarri duen hirugarrenak BCCFren marka, izena, izen komertziala, errotulua, logotipoa edo BCCFren titulartasunekoia eta WEBGUNEAREN ingurukoa den beste edozein elementu identifikagarri barne hartu nahi baldin badu, BCCFren alde zuzeneko baimena beharko du, berariazkoa eta idatzizkoa.

Aurretik esandako guztiaren kalterik gabe, <https://goe.bc culinary.com/> webguneako web-orri bat BCCFrena ez den beste webgune bateko leihoan *framing* teknikaren bidez agertzea erabat debekatuta dago, BCCFren berariazko baimena izan ezean.

Halaber, <https://goe.bc culinary.com/> webgunearen bidez zabalduko edozein eduki WEBGUNEKOIA ez den beste webgune edo web-orri batean *in line linking* teknikaren bidez agertzea ere guztiz debekatuta dago, BCCFren berariazko baimena eduki ezean.

Aurretik adierazitako baldintzak betez hiperesteka bat jartzeak ez du inola ere esan nahi BCCFren eta hiperesteka agertzen den webgunearen edo web-orriaren jabearen artean harremanik dagoenik, ezta BCCFk haren edukiak eta zerbitzuak onartu edo ontzat ematen dituenik ere.

Edozein kasutan, BCCFk WEBGUNERAKO edozein hiperesteka edozein unetan debekatzeko edo baliogabe uzteko eskubidea izango du, bereziki hiperesteka agertzen den webguneako edo web-orriko jardura eta edukiak legez kanpokoak baldin badira.

PRIBATUTASUN-POLITIKA. DATU PERTSONALEN BABESA

ERABILTZAILERAK [esteka](#)¹ honetan dauka BCCFko datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio zehatza.

COOKIE-POLITIKA

WEBGUNE honek cookie fitxategiak edota datu analogoak biltegiratzeko eta berreskuratzeko beste modu batzuk erabiltzen ditu.

BCCFk cookie-politika bat ezarri zuen, zeina [esteka](#)² honen bidez ikus baitaiteke.

APLIKATU BEHARREKO LEGEDIA ETA JURISDIKZIOA

ERABILERA-BALDINTZA hauek Espainiako ordenamendu juridikoaren mende daude.

¹ WEBGUNEARI dagokion “Pribatutasun-politika” testura bideratu behar du estekak ERABILTZAILERA.

² WEBGUNEAN inplementatzen den cookie-politikara bideratu behar du estekak erabiltzailea.

WEBGUNEAN eta hango edukietan sartzetik eta BCCFk WEBGUNEAREN bidez ERABILTZAILEEN esku jartzen dituen zerbitzuak erabiltzetik erator daitekeen edozein gatazka konpontzeko, ERABILTZAILEAK eta BCCFk adosten dute Donostiako epaitegien mende jarriko direla berariaz, eta uko egingo diotela legez egokitu dakiekeen beste edozein foru orokor edo bereziri.